




«Hondakinak prebenitzen hasi behar du administrazioak, baina ausardia behar da»

**Merce Girona i Ribes**

Prebencio de Residus i Consumeko burua • 13

OSTEGUNA, 2014KO EKAINAREN 19A • XII. URTEA • 3.408. ZENBAKIA • WWW.BERRIA.INFO

1,30 EURO



## Plater hutsak, betikotzear

Caritasek 2013ko datuen berri eman du. Laguntza bila doazenek gero eta luzarago dute horien premia • 12

# 156.000

**CARITASEK LAGUNDUTAKOAK**

Elkarteak jakinarazi duenez, bazterketa eta pobrezia egoeran dauden 156.000 pertsonari eman die laguntza.

## Harian 2

**Energia nuklearra gutxitu nahi du Frantziak, baina ez du eperik zehaztu**

Trantsizio energetikoaren lege proiektua aurkeztu du. Datozen hamabost urteetan energia berri-erazgarrien erabilera bikoizteko asmoa jaso dute egitasmoan. • 2-4

**150 lanpostu eta kalte-ordainak adostu dituzte Fagorren**

Fagor Etxetresnak, Edesa eta Grumaleko langileetatik gutxienez 150 kontratatuko dituztela bermatu diete likidazio prozesuan, eta hitzartu dute likidaziotik ateratzen den dirutik bederatzita milioik kalte-ordainak pagatzeko izan behar dutela. • 17

**Aire erasoak egiteko eskatu die Irakek ofizialki AEBei**

Jihadistei aurre egiteko zailtasunak gaina hartuta, Irakek militarri esku hartzeko eskatu die AEBei. AEBek diote aire erasoak egiteko zailtasunak dituztela. Bestalde, Iran prest agertu da gurtza guneak muturreko suritengandik babesteko. • 19

## Kirola 25

**Hasterako, Munduko Kopatik kanpo utzi du Txilek txapelduna • 25**

0	Espainia	🏆
2	Txile	🏆
2	Australia	🏆
3	Herbehereak	🏆



Sergio Ramos lur jota, atzo. O.W./EFE



Gotzon Hermosilla Bilbo

Laguntza behar duten herritar gehiago, egoera horretan denbora luzeagoa ematen dutenak. Emakume gehiago. Familia gehiago, guraso bakarreakoak batez ere. Eta Euskal Herrian jaiotakoak ere gero eta gehiago, premia herriak dauden etorkinen kopuruaren pare iritsi arte ia-ia.

Horiek dira Caritasek emandako datuetatik atera daitezkeen ondorio nagusiak. Atzo, agerraldiak egin zituen Caritasek Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan, norik bere herrialdearen datuak emateko, 2013. urteari dagokionez. Kasu batzuetan, zaila da herrialde guztietako datuak erakatea, zenbaketak egiteko erabilitako irizpideak aldatzen direlako herrialde batetik bestera, baina joerak behintzat nahiko antzekoak dira guztietan: pobrezia eta bazterketak hori dira, gizartearen sektorerik ahulenei egiten diete eraso eta, gainera, arazoa betikotzeko bidean dago.


Gutxienez, 46.000 lagun eskaini zion zerbitzua Caritasek 2013an Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, aurreko urtean baino 6.000 gehiagori -Nafarroako Caritasek ez du horren inguruko datuak eman-. Benetako kopurua handiagoa izan daiteke, ordea; izan ere, Ramon Ibeas Gasteizko Caritaseko idazkari nagusiak adierazita koaren arabera, Araban eta Bizkaian Caritasen programetan sartuta daudenak zenbatu dituzte, eta Gipuzkoan, berriz, horien pentzuan dauden senitatekoak ere hartu dituzte aintzat. Benetako kopurua 70.000 lagunetik gertu egin daiteke, hortaz.

#### ARABA

##### ●●● Emakumea eta gaztea

Arabako Caritasek 5.107 lagun eskaini zion zerbitzua 2013an. Ramon Ibeasek azaldukoaren arabera, 31 eta 50 urte bitarteko emakumeak izan ziren horietatik %60, normalean bikotekiderik gabeak, eta haurrekin. Gainerako herrialdeetan ere, gehiago dira Caritasek laguntza eske jotzen duten emakumeak gizonezkoak baino. Horrek adierazten du «pobreziaren feminizazioa» gero eta agerriagoa dela, Ibeasen esanetan.

Arreta jaso zutenen %60 lanik gabe zeuden, eta %47k senitatekoak zituen euren gain. Ibeasek esandakoaren arabera, eskaera horietako askoren atzean etxebizitzaren arazoa dago. «Familiek ez dute bizilekua galdu nahi», adierazi du, «eta hori lortzeko beste zenbait kontu sakrifikatze-ko prest daude». Horren zuzene-



Caritasek Bilboko Plaza Barrian antolatutako elkartean ekintza bat. MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

## Pobrezian, gehiago eta denbora luzeagoan

2013ko txostenak aurkeztu ditu Caritasek Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan • Emendatu da laguntza behar izan dutenen kopurua • Pobreziaren arazoa «betikotzeko» arriskuaz ohartarazi dute

ko ondorioa da familia horien «prekaritatea eta babesgabetasuna» asko larritzen dela.

#### BIZKAIA

##### ●●● Bost urte baino gehiago

Bizkaian, Caritasek 12.084 pertsona lagundu zituen 2013an. Datuak aurreko urtekoen antzekoak dira, baina, Carlos Bargas zuzendariak eta Ana Sofi Telletxea azterketa eta garapen sailko arduradunak esan dutenez, badago azaldu beharreko xehetasun garrantzitsu bat: lehen, lan arloko arreta ere eskaintzen zuen Caritasek, baina Lanbide eginkizun hori hartu zuenetik, programa

horiek desagertu dira Caritasen eskaintzatik. Gizarte ekintzako arloan, 10.860 lagun artatu zituzten 2013an, aurreko urtean baino 561 gehiago.

Lehen, premian zeudenek Caritasek jotzen zuten laguntza bila, eta programa uzten zuten lana aurkitutakoan. Hori erabat aldatu da. Bost urte baino gehiago eman dutenen kopurua etenik gabe igo da azken urteotan, eta 2013an, lehenengo aldiz, horien ehunekoa handiagoa izan da estreinakoz izena eman dutenena baino: laguntza jaso dutenen %31k bost urte edo gehiago zermatzaten egoera horretan, eta le-

henengo aldiz izena eman dutenak %30 ziren.

Horrek agerian uzten du «arazoa betikotzeko arriskua». Arrazoiak ere azaldu dituzte: lehen, lana tresna indartsua zen bazterketa egoeratik ateratzeko. Orain ez da hala gertatzen.

Beste aldetik, laguntza eskaintzen dutenen artean, etorkinen kopurua eta Euskal Herrian jaiotakoena parekatzen ari da. Bizkaian, %48 ziren Euskal Herrian jaiotakoak, eta %52 etorkinak.

#### GIPUZKOA

##### ●●● Soslai berria

Bizkaiko antzeko joera sumatu

## Udalei laguntzeko eskatu dio PSE-EEk Juan Mari Aburtori

➕ Gizarte larrialdietarako diru laguntzen aurrekontua ez dela aski izango adierazi zuen herenegun Juan Maria Aburto Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietarako sailburuak. Udalek kudeatzen dituzte larrialdi laguntza horiek, eta moldatau egin beharko dutela erantsi zuen. Atzo, udalei laguntza emateko eskatu zion PSE-EEk.

dute Gipuzkoan, Caritasek iaz lagundutako 29.306 pertsonak aztertuta: gero eta gehiago dira Euskal Herrian jaiotakoak, etorkinen kopuruaren pare iristeraino ia. Jose Ramon Aramendi Gipuzkoako Caritaseko zuzendariak «laguntza eskatzen dutenen soslai berriaz» ere hitz egin du: bikote gazteak, etorkinak zein ez, seme-alabak dituztenak, biak lanean ari zirenean etxebizitza erosi eta geroago lana galdu dutenak, eta gainerako baliabide guztiak agortu dituztenak. «Familia horiek ezin ditugu bazterketan erortzen utzi», esan du Aramendik.

Gainerakoan, Gipuzkoan Caritasek laguntza eske jo dutenen ezaugarriak nahiko antzekoak dira beste herrialdeetako datuekin alderatuta, eta han ere «pobrezia emakumezkoa da», Aramendiren esanetan. Caritasek Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan laguntzetara bideratutako bost milioi euroetatik, 1,8 milioi euro Gipuzkoan gastatu zituzten.

#### NAFARROA

##### ●●● 110.000 herritar baztertuak

Elkartearren jardueraren datuak eman ordez, herrialdearen egoera orokorrari so egitea hobetsi du Nafarroako Caritasek bere agerraldian, eta azaldu du populazioaren %17,2 baztertuta dagoela; hots, 110.000 lagun -edo 42.000 familia-. Horietatik ia erdiak, %43,6, «bazterketa egoera larrian» daude.

Nafarroako Caritaseko zuzendari Angel Iriartek zehaztu du datu horiek bazterketaren ingurukoak direla, eta ez soilik pobreziaren ingurukoak, diru sarrerez gain bestelako adierazleak ere aztertutakoak izan direla.

«Nafarroan badugu oso integratutako gizonak, baina baztertuta dagoen beste zati hori beste leku batzuetan baino bakartuago dago», gaineratu du Iriartek.